



Lezo Mari Karmen Arrastuaren oroimenetan

Herria: Lezo

Lekukoa: M^a Carmen Arrastua, 37 urtekoa.

Biltzailea: Ramon Albistur. Traslobatzaonia. Jose Mari Etxebarria.

Fetxa: 1981ko udaberria.

Lezok zittun erri bezela ayuntamientua, bi elizak, bat, Santo Kristo famatua. Denak ezkontze(n) etortzen ziena, bueno denak, aberatz jendiak, deitzen genion bezela eta geo goiko eliza, batayuak eta itentzen parrokiya. Geo sarrera, terreno aundi bat zen, zelai bat, ua bertako obispuena zen, Antonio Pildain deitzen tzayona. Ta ne(r)e aitak ibiltzantzittun an sokorak eta denak, bea zeon ua kontzejo edilla ez? Beak errenta bat paatzentzuen baiñan ortaz aurrera, pues, bea baliatuintzen an tzeosten gauzakin. Geo fabrika oi intzuten "*Industria Navarra*", deitzentzayona. Gaur ortikan kendu puerto eiteko eta aldatua da, erri berrian baiñan basarriaren alderdia pasia. Eta geo zen, pues, beste barriyu au, gaur "*Ijurko*" deitzentzayon au, ezen olako ezer, baizik zelayak ziren, denak frutalak zien eta geo zen billa bat, oso billa dotoria, "*Leturian*" izenekoa, Lezoko semiana. Geo ezen dè lberduero, Lezoko irteerainño eta eztaere Lezoko sarreran "*Campsa*" dè ezeon; oyeko "*Campsa*" oso berria da. Oi oso berria da. Eta oso zen diferentia "*casa socorro*" deitzen tzayona, gaur dakaguna, bazan, baiñan konsejo azpiyan, ayuntamiento azpiyan eta or, ezta, izatentzen sendagille bat bakarra, Garai artan jende dè gutxi giñan eta an itentzittun bere artuemanak. Pratikantia beti ezautu dugu Errendeitikan etortzen.

Lezok ez du izandu, gaur oraindik ez daka gaurkoz. Eta klaro dendak ê askoz gutxiyo zien, jende gutxiyo zen, arateyak ê gutxiyo zien; dena euskaldun girua zen. Bazien erdaldun batzue.

Eskolak beti ezautu dittuu nazionalak ô estatalak delako oyek, eta denak eztakit ezautzen giñan. Oso diferente zen. Gaurko egunez, oso diferentetua dô Lezo. Ezen ez zapateri bat; gaur ez daka askoik, baiñan bat bintzat badaka. Eta botikare, farmatzia deitzen diyogun oi, oso txikiya zen. Eozein egunetan joaten ziñan zerbaiten billa eta ezen izaten. Errendeitikan ekarri beartzizuten. Gaur, pues, askoz obeto do.

Soziedadeik ezen; geroâ jarri zuten "Aillerru" baiñan ainbeste urte ezta, baiñan ba, urte batzuk baittu. Eta beste aiñontzekoan Lezo erri txikiya zen eta eliz pentzatu ez eta beste siñontzekoan or ezen ezere eitten. Bakarra elizan ze inbeartzen, oi bai, elizako gauzak oso ondo e(a)man beartzien. Zortziik zortzi(r)a dotriña izaten genun arratzaldeko ordubitan, denak dotriña-a joan bear genun, neskamutillak t'olaxen jarraitzen giñan amaika urte arte, komuniyua egiteko, porke zazpi urtetan eittentzen komuniyoa txikiya deitzentzayona ta geo amaiketan o amabitan, San Jose egunakin ittentzen komuniyua, martxoan emeretzian. Orduan bitarte(n) iña bazenittun amaika urte komuniyua uzten zizun itten, baiñan mayatzian bazenittun ya ezintzenun in, ya amabi urtekin in beartzenun komuniyua.

ESTROPADAK

Estropadana berriz, pues, esateizut, Pasayakin beti gaizki, Pasai Donibanekin. Pasa San Pedrokin ni mintzat, nere giruan ez, baiña guek beti gaizki, porke, klaro, ayek ureko semiak die ta Lezo ezta ureko semia; ta ayek obeto zeozten gauza ortako, obeto preparatuak zeozten; baiñan beti guei gutxigo iten, te guek ya, pues beei amorraziyua artzen. Ortzeaz juatentzian estropadana, setienbrian, lenbiziko igandian eta bigarrena izatentzen, eta ortxen irabazten bazuten, soñuakin e?, bere akordeoyakin joaz, sartzentzien Santo Kristoa, banderua presentatzean, 'ta gure bat errezatzea eo eztakit zer, ta an presentatzea, ta berriz soñuakin ta bere bozinakin, ta jartzentzien, bueno... Ortxen galtzentzuten? Atzeko bidetikan, gaur kamiyo jenerala deitzentzayona, beti "atzeko bidea" deitziyogu. Andikan irtetzentzien. Eta beti, pues, alaxeko zea bat izandu da Pasayan kontra. Geo beste bein, pues Lezo Donosti-a juntzen, baiñan suspendittu âzi intziyoten, ô eztakit, balizakin ze pasa zayoten. Ez naz goozten oan, nola izandu zen oi, baiñan bai badakit, mutillak artu, ara jun eta denak se-i eta eziyotela utzi ateratzen, erretiratu âzi intziyotela, ta klaro, momentu artan, pues, zea aundiyak ibilli zien, bate zuela kulpa, besteak ezula, baiñan ai eziyoten utzi beintzat jarraitzen. Geo beste bein goatzen naz, pues, zea aundiyak ibilli zien, bate zuela kulpa, besteak ezula, baiñan ai eziyoten utzi beintzat jarraitzen. Geo beste bein goatzen naz, pues, kanpoa juntziela, eztaipa, Santanderra juntzien eta an estropa eintzuten eta bueno, etzuten irabazi, ezta gutxiko, baiñan an ezien atzenak etorri, ta orduan, pues klaro, ni umia nitzan, baiñan an ezien atzenak etorri, ta orduan, pues klaro, ni umia nitzan, baiñan goatzen naz nola Lezo(a) etorri zien gabez, gabez, pues eztakiba, zortziak izango zien o be(a)tziak. Eta nola euren soiñua asientzen, akordeoyak eta gauz oyek, eta nola emen dena(k) dantzian ibilli giñan. Leno atea giñan errezibitzea Lobatoneko arduaiño t'andikan autobusean ta gu korrika plazâ etorri bitarte, pues ayek errezibitzen, ta dena(k) dantzian nola ibilli giñan emen osea, omenaldi pixar bt nola eintzayon. Ta este, patroya gaur bizi da oaindikan, aita Manuel da eta berez sanpedrotarra, Lezoko alabakin ezkondua, baiñan lezotarra ezen berez.

Geo oan dela demo, urte batzuek bi ô iru urte, atera da "Aillerrun". Gaiñez atezen beste estropa iteko zea bat, baiñan eztut uste aurre-a jarraitu duenikan, eta gaiñea naiko atzean ibilli den gauza da, biño lenoko emoziyua mintzat nik ez det ulertu.

FRUTAK ARRAPATZEN

Geo, pues, uara etortzetzen eta gaurko keik ê nola ezen, ya mayatzako ya astetzen musikak eta potoketak: guek potoketan deitzen geniyon. Eta beti, pues eskolâ joaten giñan, oaindikan oporrak artu baiño leno asten giñan. Orreatik esatenizun mayatzan o olakon bat izatentzela ya asittentzanean. Eta bai potoketan jolasten (?) eta zeatan, neska ta mutill ze iten giñan? Alkartzen giñan eta klaro, esaten dizut, xamurrena genuen, Terexana etortzia, porke, esateizut, dena zen zelaiz, baiña dena artua zeon sagarrez, kopak eta kopak artzen arrek e? sagarrakin: asko izatetzun. Baiñan, klaro, amun xar bat zen t'errexeiten geniyon nai genuena. Baiñan Leturia billan zakaskiyen muxikak eta oyek ezittun Teresak eta ez gereziik, eta ez udareik orren onikan. Udariak izatentzien biñon, uradunak, miñon onak e? udariak. Gaurko eunez ez dut ikusi nik olako udareik emen e? Emen ez det ikusi. Eta oso zeak izaten zituzten, miñan arrei gutxitan lapurketa in bear geniyon, zergatik bai, sartzen giñan, baiñan bai atera dê martxa erdian, porke eskopetakin seittuan astentzen, eta beak esatetzuen bezela ô esatentziguten, "tiros de sal" deitzen geniyon erderaz, eta astentzen botzen eta klaro, denak irten izaten genun. Baiñan, klaro tentaziyo geyena Leturianeko billak ematentzigun. Klaro, porke, zeon oso ondo, oso ondo, ain ondo, ain dotore zeon, eta guek itxe txar batzutan bizi giñan, zuk dakizun bezela, Guek arako zea genun, bai, baita ere Martiskuenâ joaten giñan, Akeliñai lapurtzea. Klaro, oso udare onak zittun, miñon ba, aixa lapurtzen genun orkuare.

Arrek ematentzigun lana ta nere irudiya do, bueno, ua zela oso gauza dotoria eta, desde luego, pena ematen dula, e?, pena ematen dula, eta gaiñea arrun nola gauza ua bota leiken, baiña diruak gauz asko itten dittu. Ori diruan gauza da dena.

Joxe Mari Etxebarria "Euskal Dialektologiarako testu eta ariketak" (1983)

